



**Gaia: Etxe-tresna elektrikoak merkatuan jartzean sortzen diren aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak ondo kudeatzeko kontrola**

**Asunto: Control de la gestión de los Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos procedentes de la puesta en el mercado de grandes electrodomésticos**

Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila etxe-tresna elektriko handiak merkatuan jartzean sortzen diren aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen (AEEH) kudeaketa-plana prestatzen ari da, ikusita askotan ez direla behar bezala biltzen, baliotzen, berriz erabiltzen eta birziklotzen; nahiz aparatu elektriko eta elektronikoen eragindako hondakinei buruz, Europako Parlamentuak 2003ko urtarrilaren 27an xedatutako 2002/96/EE zuzentarauak hala agintzen duen, aparatu elektriko eta elektronikoei eta eragiten duten hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuaren bitartez egokituta.

El Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial está llevando a cabo un plan de control de la gestión de los Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos (RAEEs) procedentes de grandes electrodomésticos debido entre otros al incumplimiento de los objetivos de recogida, valorización, reutilización y reciclado establecidos en la Directiva 2002/96/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de enero de 2003, sobre residuos de aparatos eléctricos y electrónicos, transpuestos en el Real Decreto 208/2005, de 25 de febrero, sobre aparatos eléctricos y electrónicos y la gestión de sus residuos

Hasierako fasean, etxe-tresna elektrikoak banatzen dituzten enpresa txiki, ertain eta handiei ikuskapenak egin zaizkie, ausaz aukeratuta, etxe-tresna elektronikoen handien aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketaren baldintza legalak zenbateraino betetzen diren ikusteko.

En una primera fase se han realizado inspecciones aleatorias a grandes, medianos y pequeños distribuidores de electrodomésticos con el objetivo de determinar el grado de cumplimiento legal a la hora de gestionar los Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos (RAEEs) procedentes de grandes electrodomésticos.

Ikuskapen horietan bildutako informazioa aztertu ondoren, konturatu gara kasu gehientsuenetan hondakinen kudeaketa ez dela legeak agintzen duen eran egiten, etxe-tresna elektrikoetarako renove planik indarrean egon ez denean. Alderantziz, ikuskatu ditugun banatzaile gehienek AEEH ondo kudeatzen dutela egiaztatu dute etxe-tresna elektrikoetarako renove planen bat indarrean egon den garaian.

Una vez recopilada la información generada, se constata que en una gran mayoría de casos la gestión no se realiza acorde a la Ley en los periodos en los que no está vigente ningún Plan Renove de electrodomésticos. Por el contrario, la gran mayoría de los distribuidores inspeccionados, acreditan la correcta gestión de los RAEEs en los periodos en los que está vigente algún Plan Renove de electrodomésticos.



Aparatu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen kasu konkretuan, legeak agintzen duenez, kudeaketa-sistema integratuaren bitartez (KSI), AEEHak tratatzeko baimena daukat kudeatzailearen bidez edo KSI bati atxikita dauden AEEH multzokatze-zentroen bidez kudeatu behar dira.

Aparatu elektriko eta elektronikoei eta eragiten duten hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuak adierazten du derrigorra dela bezeroak berria erosi duela-eta baztertuta geratu den etxe-tresna elektrikoa jasotzea, aldi baterako eta kosturik gabe, oinarriko osagaiak oraindik baldin baditu eta aparatuarenak ez diren bestelako hondakinik ez badu.

Ingurumenari buruzko legediak oneratzeko/berrerabiltzearen betekizunak eta helburuak bete ahal izateko, informazioa eman behar da eta irizpideak ezarri; eta, horren ondoren, etxe-tresna elektriko handietatik sortutako AEEHak ondo kudeatu dituztela egiaztatzeko banatzaile bakoitzak zer pauta bete behar dituen ezarri behar da.

-Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak nola kudeatuko diren ziurtatzeko agiriak aurkeztu beharko dira (esate baterako, KSIrekin lotutako akordioa, AEEHak tratatzeko kudeatzaile baimendua onartzearena, KSIari lotutako multzokatze-zentroarekin sinatutako kontratua).

- 15 eguneko epean, [inspeccionambiental@ej-gv.es](mailto:inspeccionambiental@ej-gv.es) helbidera bidali behar dira, e-mailez, proposatutako kudeaketaren egiaztagiria (KSIrekin lotutako akordioa, AEEHak tratatzeko kudeatzaile baimendua onartzearena, KSIari lotutako multzokatze-zentroarekin sinatutako kontratua). E-mailaren gaian, nahikoa izango da establezimenduen arazo soziala jartzea, baina dagozkion egiaztagiria ere atxiki beharko dira.

La legislación establece que para el caso concreto de los Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos (RAEEs) se deberán gestionar vía Sistema Integrado de Gestión (SIG), Gestor autorizado para el tratamiento de RAEEs o Centros de Agrupamientos de RAEEs adscritos a SIGs.

El Real Decreto 208/2005, de 25 de febrero, sobre aparatos eléctricos y electrónicos y la gestión de sus residuos indica la obligatoriedad de recepcionar temporalmente, sin coste adicional alguno, el aparato que el usuario desecha por la compra de un aparato nuevo que lo sustituya, siempre que contenga los componentes esenciales y no incluya otros residuos no pertenecientes al aparato.

Con el objetivo de informar y establecer unos criterios de cara a cumplir con las exigencias y objetivos de valorización/reutilización que plantea la legislación medioambiental, a continuación se establecen las pautas que cada distribuidor deberá seguir para acreditar la correcta gestión de los RAEEs procedentes de grandes electrodomésticos

- Se acreditará documentalmente la gestión que se le va a dar a los RAEEs (ej.: Acuerdo con SIG, Documento de Aceptación con gestor autorizado para tratar RAEEs, acuerdo o Documento contractual suscrito con un Centro de Agrupamiento adscrito a SIG)

- En el plazo de 15 días se remitirá vía email a la siguiente dirección [inspeccionambiental@ej-gv.es](mailto:inspeccionambiental@ej-gv.es) la acreditación documental (Acuerdo con SIG, Documento de Aceptación con gestor autorizado para tratar RAEEs, Documento de Aceptación con Centro de Agrupamiento adscrito a SIG.) de la gestión propuesta. En el asunto del mail únicamente se incluirá la razón social del establecimiento y se adjuntará la acreditación documental.



- Erregistroa eraman beharko da:
  - Hilero saldu diren etxe-tresna elektriko handien kopurua, aparatu motaren arabera (hozkailuak, izozkailuak, arropagarbigailuak, lehorgailuak, ontzi-garbigailuak, labeak, haize egokitutako aparatuak).
  - Aparatu berriak jartzean, zenbat AEEH jaso diren, aparatu motaren arabera (hozkailuak, izozkailuak, arropagarbigailuak, lehorgailuak, ontzi-garbigailuak, labeak, haize egokitutako aparatuak).
- KSlari, kudeatzaile baimenduari edo multzokatze-zentroari ezer ematen zaion aldiro, agiria egin beharko da, hots, eman izanaren albarana edo kontrol- eta jarraipen-agiria.
- Ziurtagirian honako informazioa jarri behar da:
  - AEEH kopurua eta noizkoak diren, motaren arabera bereizita; KSlari, kudeatzaile baimenduari edo multzokatze-zentroari ezer ematen zaion aldiro.
  - Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak dendatik edo aparatu berria entregatu behar den etxetik ateratzen dituen enpresaren edo garraiolariaren datuak.
- Se llevará un registro en el que se contemple:
  - Numero de grandes electrodomésticos (frigoríficos, congeladores, lavadoras, secadoras, lavavajillas, hornos, aparatos de aire acondicionado) vendidos al mes por tipo de aparato.
  - Numero de RAEEs (frigoríficos, congeladores, lavadoras, secadoras, lavavajillas, hornos, aparatos de aire acondicionado) recogidos al mes como sustitución de los puestos en el mercado por tipo de aparato.
- Se acreditará documentalmente cada entrega a SIG, gestor autorizado o centro de agrupamiento mediante albarán de entrega, Documento de Control y Seguimiento o Documento de Seguimiento y Control.
- La acreditación documental dispondrá de la siguiente información:
  - Fecha y número de RAEEs clasificados por tipos en cada entrega que se realice al SIG, gestor autorizado para tratar RAEEs o centro de agrupamiento asociado a un SIG.
  - Datos de la empresa o transportista que realiza la retirada de RAEEs de la tienda o desde el domicilio de entrega del aparato eléctrico nuevo.



Gehienez ere 9 hilabeteko epean, berriro beste ikuskapen-bisita egingo zaie etxe-tresna elektrikoek banatzaile txiki, ertain eta handiei, legea zenbateraino betetzen duten ikusteko. Ausaz aukeratutako lekuetan egingo dira ikuskapenak, honako hauek begiratzeko:

- AEEHak behar bezala kudeatzen direla, KSI, kudeatzaile baimendu edo multzokatze-zentroaren bidez

- Banatzaileak adierazitako AEEHak zuzen datozela bat bezeroaren etxetik kendutakoekin. Bezeroengana joko da hori ziurtatzeko.

- Kudeatutako AEEHak banatzaileak benetan adierazitakoak direla. KSI, kudeatzaile edo multzokatze-zentroetara joko da hori ziurtatzeko

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak xedatzen du, besteak beste, hauek direla arau-hauste larriak:

- Edozein hondakin bertan uztea, isurtzea edo kontrolik gabe desegitea.
- Agiriak aurkezteko obligazioari huts egitea.
- Herri Administrazioei ez uztea gainbegiratzeko, ikuskatzen eta kontrolak egiten.

En un periodo no superior a 9 meses se realizará otra campaña de inspección a las grandes, medianas y pequeñas distribuidoras de electrodomésticos con el objetivo de determinar el grado de cumplimiento de la legislación. Las inspecciones se realizarán de forma aleatoria y se comprobará:

- Que los RAEEs son gestionados adecuadamente vía SIG, gestor o centro de agrupamiento autorizado.

- Que los RAEEs declarados por el distribuidor son los realmente retirados en el domicilio del cliente. Se contactará con los clientes.

- Que los RAEEs gestionados son los realmente declarados por el distribuidor. Se contactará con los SIGs, gestores o centros de agrupamiento.

La Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados establece en su artículo 46, entre otras, las siguientes infracciones graves:

- El abandono, vertido o eliminación incontrolada de cualquier tipo de residuos.
- El incumplimiento de la obligación de proporcionar documentación.
- La obstrucción a la actividad de vigilancia, inspección y control de las Administraciones Públicas.



Arau-hauste larriek, besteak beste, 901 eurotik hasi eta 45.000 euro arteko isuna izan dezakete; alabaina, hondakinak arriskutsuak badira, isuna are handiagoa izango da, 9.001 euro eta 3000.000 bitartekoa. Adibidez:

- Hozkailu konbiak, izozkailuak, haizea girotzeko aparatuak gaizki kudeatzea: 9.001 euroko isuna.

- Arropa-garbigailu, lehorgailu, ontzi-garbigailu eta labeak gaizki kudeatzea: 901 euroko isuna.

Komunikazio honekin batera, dokumentu hauek ere atxiki ditugu:

- EAEn baimena daukaten KSlen zerrenda.

- EAEn baimena daukaten AEEHak multzokatzeko zentroen zerrenda.

- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

- 208/2005 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, gailu elektriko eta elektronikoei eta beren hondakinak kudeatzeari buruzkoa.

Adeitasunez

Gasteiz, 2013ko urriak 30

Las infracciones graves pueden conllevar entre otras, una multa desde 901 euros hasta los 45.000 euros excepto si se trata de residuos peligrosos, en cuyo caso la multa será desde 9.001 euros hasta 300.000 euros y así:

- Cada frigorífico/combi, congelador, aparato de aire acondicionado no gestionado adecuadamente puede conllevar una multa de 9.001 euros.

- Cada lavadora, secadora, lavavajillas y horno no gestionado adecuadamente puede conllevar una multa de 901 euros.

Se adjunta a la comunicación la siguiente documentación:

- Listado de SIGs autorizados en la CAPV

- Listado de Centros de agrupamiento de RAEEs autorizados en la CAPV

- Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

- Real Decreto 208/2005, de 25 de febrero, sobre aparatos eléctricos y electrónicos y la gestión de sus residuos.

Atentamente,

En Vitoria, a 3 de octubre de 2013

  
Sin. / Fdo.: ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA  
INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL

